



IKASLEAREN GIDA

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

EGOITZA

BIZKAIKO CAMPUSA (LEIOA)

Ongi etorri UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatera.

Fakultatea 2016ko urtarrilean sortu zen, Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola eta Lan Harremanen Unibertsitate Eskola batu zirenean.

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/hasiera>

Gida honetan titulazioei eta ikastegiari buruzko informazio baliagarria aurkituko dugu (instalazioez, zerbitzuez, antolakuntza akademikoaz...)¹. Lehen egunetik lagungarri gerta dakizukeen informazio guztia bildu dugu.

Zure iradokizunen zain geratzen gara edizio hau hobetzeko.

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/sugerencias>

GIDAREN EDUKIAK

Langileak	3
Non-zer	7
Titulazioa	13
Antolakuntza akademikoa	19
Bestelako informazio jakingarria	26

¹ Gida hau euskarri digitalean dago, fakultatearen web orrian.

Langileak

DEKANOTZA TALDEA

BIZKAIKO EGOITZA		
Egoitzaren Koordinaziorako eta Mugikortasun dekanordea	Javier Cerrato	franciscojavier.cerrato@ehu.eus
Idazkari Akademikoa	Garikoitz Otazua	garikoitz.otazua@ehu.eus
Prestakuntza Duala eta Borondatezko Praktiken dekanordea	Aitor Basañez	aitor.basanez@ehu.eus
Komunikazio eta Irakaskuntza Berrikuntzako dekanordea	Jesús Olea	jesus.olea@ehu.eus
ARABAKO ATALA		
Dekanoa	Amaia Inza	amaia.inza@ehu.eus lh-gl.dekanoa@ehu.eus
Antolakuntza Akademikoko dekanordea	Arkaitz Fullaondo	arkaitz.fullaondo@ehu.eus
Ataleko dekanorde Koordinatzaile eta Berdintasun eta Nazioartekotze dekanordea	Ixone Fernández de Labastida	i.fernandezdelabastida@ehu.eus
Kurrikulumeko Praktika eta Garapenerako Kooperazioko dekanordea	Eduarne Aranguren	edurne.aranguren@ehu.eus

IKASTEGIKO IRAKASLEAK

EGOITZA	ATALA
53	41
https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-relaciones-laborales-y-recursos-humanos/profesorado	https://www.ehu.eus/es/web/graduak/grado-trabajo-social/profesorado

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

BIZKAIKO EGOITZA		
Administratzailea	Amaia Gezuraga	lh-gl.administratzailea@ehu.eus
Ikastegiko teknikaria	Miren Valdebere	bi-lh-gl.teknikaria@ehu.eus
Idazkaritzako burua	Helena Anzola	helena.anzola@ehu.eus bi-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Administratiboa	Peli Amezaga	xabierpeli.amezaga@ehu.eus bi-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Adm. laguntzailea (idazkaritza)	Beatriz Ugarte	beatriz.ugarte@ehu.eus
Adm. laguntzailea (idazkaritza)	Josu Libano	jesus.libano@ehu.eus
Adm. laguntzailea (idazkaritza)	Itziar García	mariaiciar.garcia@ehu.eus
Adm. laguntzailea (dekanotza)	Ana Vacas	anamaria.vacas@ehu.eus
Adm. laguntzailea (zentroa)	Mireya Ferreras	mireyajosefina.ferreras@ehu.eus
Dekanoaren Idazkaria	Karmele Pérez	lh-gl.dekano.idazkaria@ehu.eus
Atezain nagusia	Jesús M. Basterretxea	jesusmari.basterretxea@ehu.eus
Atezain nagusia	Javier Sanz Jiménez	jabier.sanz@ehu.eus
Atezaina	Paco Urbano	francisco.urbano@ehu.eus
Atezaina	Rosa Hernando Feijoo	rosamaria.hernando@ehu.eus
ARABAKO ATALA		
Administratzailea	Begoña García	lh-gl.koordinatzailea@ehu.eus
Ikastegiko teknikaria	Blanca Rescalvo	ar-lh-gl.teknikaria@ehu.eus
Idazkaria (dekanotza)	Ana Uribesalgo	ar-lh-gl.dekanotza@ehu.eus
Idazkaritzako burua	Kontxi Morondo	kontxi.morondo@ehu.eus ar-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Adm. laguntzailea (idazkaritza)	Nuria González	ar-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Adm. Laguntzailea (zentroa)	José Manuel Lizarralde	josemanuel.lizarralde@ehu.eus
Atezain nagusia	Javier Ochoa	ar-lh-gl.atezaintza@ehu.eus
Atezain nagusia	Ana L. Suberbiola	ar-lh-gl.atezaintza@ehu.eus



Non-zer

FAKULTATEA KOKAPENA BIZKAIKO CAMPUSEAN (LEIOA-ERANDIO EREMUA)

Fakultatea Bizkaiko Campusean dago:

Sarriena auzoa z. g., 48940 Leioa – Erandio

Tf: 946 01 31 02



Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

ESPAZIOEN BANAKETA

SOLAIRUA	GELAK	MINTEGIAK	BESTE ESPAZIO BATZUK
Laugarren solairua	Dolores Ibarruri Gradu Aretoa		•Irakasleen bulegoak
Hirugarren solairua		*Mintegi txikia *Clara Zetkin Mintegia	•Dekanotza •Irakasleen bulegoak •AZPkoen eta IRlen jantokia/gela •Ikasleen jantokia/gela •Ikasleen Kontseiluaren gela •Ikasteko gela
Bigarren solairua	2.1 ikasgela 2.2 informatika gela 2.3 ikasgela 2.4 informatika gela 2.5 ikasgela 2.6 ikasgela 2.7 ikasgela	*Eztabaida Mintegia	•Bilera gela •Edari eta janari makinak
Lehen solairua	1.1 ikasgela 1.2 ikasgela 1.3 ikasgela 1.4 ikasgela 1.5 ikasgela		•Administrazioa •Idazkaritza •Atezaintza

INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

<https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/zerbitzuak-egoitza>

Ikastegiaren ordutegia:

Ikastegia zabalik dago ikasturte osoko astegunetan astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 20:30era, salbu eta neguko eta udaberriko oporretan eta uztail eta abuztuan. Opor sasoi horietan ordutegia zertxobait desberdina da, baina behar besteko tarteaz argitaratzen da.

Atezaintza

Atezaintza beheko solairuan dago, eraikinaren sarreran. Bertan informazio orokorra ematen zaio jendeari, eta instalazioen kontrol eta sostengurako beste lan batzuk egiten dira. Ordutegia: 08:00etatik 20:30era.

Idazkaritza

Bertara joan beharko zara zure espediente akademikoarekin zerikusia duten eskari edo kontsultak egiteko (ziurtagiriak eskatzeko, beka eskariak aurkezteko, jarduera espezifikoen inguruko kredituen aitorpena eskatzeko...).

Idazkaritza lehen solairuan dago, atezaintzaren ondoan. Jendearentzako ordutegia honako hau da: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 16:30era, astearte eta asteazkenetan, 9:00etatik 14:30etara eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara. Neguko eta udaberriko oporretan eta udako lanaldian (maiatzaren 30etik irailaren 9ra), berriz, 09:00etatik 13:00etara.

Ikasletxea / Langileen jangela

Erabilera askotako gela bat da. Ordu tarte batzuetan ikasteko gela edo bilera gela da, eta beste tarte batzuetan, berriz, jangela. Hirugarren solairuan dago, AZPkoentzat eta IRIentzat dagoen antzeko gelaren ondoan.

Wifi gunea

Ikastegian wifi gunea dago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/wifi-eduroam>. Arazorik izanez gero ekipoa konfiguratzeko, begiratu web orrian (<https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau>) edo deitu Erabiltzaileen Zerbitzura: 945-01 44 00.

Ikasleen Kontseiluaren gela

Hirugarren solairuan dago.

Biblioteka

Bizkaiko Campuseko Biblioteka Leioako Campusaren erdian dago, Bibliotekaren eraikinean. Esteka honetan informazioa aurkituko duzu Bibliotekaren funtsaz eta mailegu aukerez:

<https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/home>

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua (IAZ)

UPV/EHUko ikasleentzako zerbitzu bat da, Ikasleen Errektoreordetzaren menpe dagoena. Haren zeregina da aholku akademikoa eta orientazio profesionala ematea laguntza eske doazen ikasleei.

Campusetako orientazio zerbitzuen bitartez funtzionatzen du, campus bakoitzeko orientatzaile batekin. Haren lana osatzeko, ikastegietan ere bada orientazio talde bana, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuko langileez eratua.

Ikasleentzako Argibide Zerbitzua Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko beheko solairuan dago. Harremanetarako: 94 601 31 59 / sou@ehu.eus

Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua

Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuak aholku akademikoa ematen die desgaitasunen baten ondorioz behar bereziak dituzten ikasleei. Hala, beren eskubide eta betebeharrei eta unibertsitateak haientzat dituen baliabide espezifikoetarako buruzko informazioa ematen die. Bizkaiko Campusean zerbitzu honek Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko beheko solairuan dauka bulegoa. Sarriena auzoa z.g., 48940 Leioa. Harremanetarako: 94 601 22 58 / discap@ehu.eus

Beste zerbitzu batzuk

Beste zerbitzu interesgarri batzuk ere aurkituko dituzu campusean, hala nola Kirol Zerbitzua, Enplegu Gunea, Gazteentzako Informazio Zerbitzua eta abar. Bizkaiko Campuseko webgunean aurkituko duzu zerbitzu guztion kokaguneari, ordutegiari eta eskaintzari buruzko informazioa: <https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia>

Titulazioa: Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUA

Titulazioak gaitasuna ematen du bezeroei arreta eta aholkua emateko eta haien ordezkari izateko, negozioazio egokiaren bidez lan harremanen esparru desberdinetan; enpresa eta erakundeetako giza baliabideak kudeatzeko estrategiak garatu, kontrolatu eta ebaluatzeko; gizarte jarrera bat garatzeko, ahalmena ematen duena sentiberatasun informatuaz jokatzeko hainbat pertsonak eta gizarte kolektibok eremu soziolaboralean eta enpleguaren arloan jasaten duten bazterketa, zapalkuntza eta esklusio sozial, kultural eta generokoaren aurrean.

Irakasgaiak edo gaiak

Urtea	Nahitaezko irakasgaiak	Adarreko oinarrizko irakasgaiak	Beste adar batzuetako oinarrizko irakasgaiak	Hautazko irakasgaiak	GRALa	Guztira
1	--	60	--	--	--	60
2	60	--	--	--	--	60
3	60	--	--	--	--	60
4	6	--	--	48	6	60
Guztira	126	60	0	48	6	240

Irakasgaiak oinarrizkoak, nahitaezkoak edo hautazkoak izan daitezke.

- **Oinarrizko irakasgaiak:** Jakintza adar bateko (gure kasuan Gizarte eta Lege Zientzietako) gai orokorrak dira, eta ez gure titulaziokoak bakarrik. Titulazioa lortzeko, baina, ikasleek nahitaez egin eta gainditu behar dituzte.
- **Nahitaezko irakasgaiak:** Titulazioaren eduki espezifikoak osatzen dute, haren gaitasun zehatzak ematen dituztelako. Beraz, titulazioko ikasle guztiek egin behar dituzte.
- **Hautazko irakasgaiak:** ikasleek aukera ditzaketenak dira. Laugarren mailan eskaintzen dira. Ikasketa planak bi mentzio ditu (minor): "Enpresari Aplikatuak Rudeaketa", "Enpleguaren Rudeaketa" eta ibilbide bat: "Dual Ibilbidea".

Hautazkoak

Ikasleek 48 ECTS kreditu egin behar ditu hautazkoetan, 4. mailan.

Hautazko irakasgaiek plaza mugatuak dauzkate. Matrikula notaren arabera egiten da. Ikasturte bakoitzeko hautazkoen eskaintza sailen ahalmenaren arabera da.

Ikasleek eska dezakete ECTS kredituak aitortzea jarduera espezifikoen truke. Gehienez ere sei kreditu eskura daitezke horrela (egin beharreko hautazko 48 kredituetatik). Jarduera horiek izan daitezke kultur eta kirol ekintzak, elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak eta ikasleen ordezkaritza lanak.

Curriculumetik kanpoko praktikak

Praktikak borondatezkoak direnez, ez dira agertzen titulazioko ikasketa planean. Hala ere, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako prestakuntzaren ardatz nagusietako bat dira. Hainbat eremutako profesionalek kolaboratzen dute gurekin praktiketako ikasleak hartuz aholkularitzetan, giza baliabideetako zerbitzuetan, administrazio publikoan eta abar.

Ikasleek 150 eta 300 praktika ordu artean egiten dituzte (6 eta 12 ECTS bitartean), eta praktikaren interesak hala gomendatuz gero, 600 ordura luza daiteke praktikaldia. Praktikak egin ahal izateko beharrezkoa da graduako 120 ECTS gaindituta edukitzea. Hirugarren mailaren hasieran praktiken ardura daukan dekanordea ikasgeletara joango da informazio guztia ematera. Informazio gehiago eskura dezakezu hemen: [Praktikak](#)

Mugikortasuna eta nazioarteko profila

A. Mugikortasuna

Ikasleen mugikortasun programen bidez bilatzen dugu ikasleek beste errealitate batzuk ezagutzea, esperientziak trukitzea edo nazioartean txertatzea, gero eta komunikatuago dagoen mundu honetan. Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduako laugarren mailan hartzen da parte programa hauetan eta laugarreko bigarren lauhilekoan Negozio Kudeaketa eta Lan Harreman eta

Ikaslearen Gida
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.
Bizkaiko Campusa (Leioa)

Gizabaliabideetako Grado Bikoitzean. Izapideak urtebete lehenago egin behar dira.

Estatuaren barruko mugikortasun programak SICUE du izena, eta aukera ematen du edo lauhileko bat edo ikasturte oso bat egiteko CRUEko (Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarreko) kide den unibertsitate batean. Bigarren mailatik aurrera eska daiteke, behin 1. mailako 45 kredituak gaindituta izanik eta gutxienez 30 kreditutan matrikulatuta egonda.

Nazioarteko mugikortasunerako hiru programa daude: Erasmus+, Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk. Programa bakoitzean, aukeran dauden xede unibertsitateen zerrenda bat dago, urte batetik bestera alda daitekeena. Trukea laugarren mailako irakasgaiak beste unibertsitatean (GRALa izan ezik) egitean datza. Xede unibertsitatean lorturiko nota ikasleak hemen daukan espedientera pasatzen da gero.

Plazak eskaini izan dira toki eta herrialde hauetako unibertsitateetan:

ERASMUS	LATINOAMERIKA	BESTE BATZUK
Lille (Frantzia) Paris (Frantzia) Rennes (Frantzia) Bologna (Italia) Urbino (Italia) Sassari (Sardinia, Italia) Bari (Italia) Setubal (Portugal) Oporto (Portugal) Sibiu (Errumania)	Gure fakultateak herrialde hauekin dauzka hitzarmenak: • Uruguai • Mexiko Gainera, EHUk kupo orokorreko hitzarmenak dauzka	EHUk kupo orokorreko hitzarmenak dauzka EEEtik kanpoko zenbait herrialderekin

Hauek dira **Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduan** mugikortasuna eskatzeko baldintzak:

- Eskaria egiten den ikasturtean 3. mailan matrikulatuta egotea eta gutxienez 105 kreditu gaindituta izatea graduako 1. eta 2. mailen artean.
- Eskatu nahi den plazaren hizkuntza betekizuna betetzea.

Negozioen eta Lan Harremanen eta Giza Baliabideen Kudeaketako gradu bikoitzean nazioarteko mugikortasuna eskatzeko baldintzak:

- Eskabidea egiten den ikasturtean 3. mailan matrikulatuta egotea.
- Ikasleak 1. eta 2. mailako 126 kreditu gaindituta izatea eskabidea egiten den unean.
- Hizkuntzak jakitea baloratuko da (baldintza ez bada).

Gradu bikoitzeko ikasleen mugikortasuna 4. mailako bigarren lauhilekoan egingo da

Plazak esleituko dira ikaslearen espediente akademikoaren arabera.

Gomendatzen dugu xede herrialdeko hizkuntzako B1 maila izatea, gutxienez.

Estatu barruko eta nazioarteko mugikortasunari buruzko informazio guztia hemen: <https://www.ehu.eus/eu/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/mugikortasun-programak>

B. Nazioarteko Sakontze Aipamena

UPV/EHUK, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren bidez, Nazioarteko Sakontze Aipamena emango die baldintza jakin batzuk betetzen dituzten gradu edo masterreko ikasleei.

- Baldintzak

Nazioarteko Sakontze Aipamena eskuratu ahal izango dute gradua edo masterra amaitzean hiru baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

1. Gutxienez hamabost kreditu eginda izatea atzerriko hizkuntzetan UPV/EHUKo gradu batean (Practicuma eta Gradu Amaierako Lana kenduta) edo master batean (Practicuma eta Master Amaierako Lana kenduta), edo kulturarteko gaitasunen arloan gutxienez hiru kreditu eginda izatea Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak koordinatuko duen UPV/EHUKo «Intercultural competences» ikastaroaren bidez.
2. Nazioarteko egonaldi bat egin izana, gutxienez hiru hilabetekoa, graduko edo masterreko ikasketak edo praktikak egiteko, UPV/EHUKo truke hitzarmen edo programa baten babesean.

3. Atzerriko hizkuntza batean C1 maila edo goragokoa lortu izana, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera. Maila hori egiaztatzeko aurkeztu beharko da diploma edo ziurtagiri bat jasota dagoena Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarraren (CRUE) baliokidetzat tauletan edo Goi Mailako Hezkuntzako Hizkuntza Zentroen Elkartearen (ACLES) aitortpen taulan.

- Prozedura

Aipamen hori emango zaie gradua edo masterra amaitu aurretik eta titulu ofiziala eskatu aurretik baldintza horiek betetzen dituztela egiaztatzen duten ikasleei.

Unibertsitateak begiratuko du ea 1. eta 2. puntuko baldintzak betetzen dituen, eta ikasleak 3. puntuan esandako hizkuntza mailaren ziurtagiria aurkeztu beharko du. UPV/EHUK Nazioarteko Sakontze Aipamena emango dio ikasleari, eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak baimena emango du aipamena sartzeko ikaslearen tituluaren gehigarri europarrean.

GRADU AMAIERAKO LANA (GRALa)

- Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

GRALa sei kredituko irakasgai bat da, graduako laugarren mailakoa. Ikasleak nahitaez egin beharreko lan bat da, bakarka eta ikastegiko irakasle baten zuzendaritzapean. Lanean ikasleak aztertu behar du graduaren curriculumarekin zerikusia duen giza zientzietako gai bat.

Gradu Amaierako Lana defendatu ahal izango da, baldin eta ikasleari gradua amaitzeko 12 ECTS nahitaezkoak edo tronkalak baino gehiago falta ez zaizkiola egiaztatzen bada, hautazko kredituak eta Gradu Amaierako Lanekoak kontuan hartu gabe.

- Negozio Rudeaketan + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitza

Ikaslearen Gida
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea.
Bizkaiko Campusa (Leioa)

Negozioen Kudeaketako + Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradu Bikoitzean, ikasleek GRALa 5.mailan garatzen dute eta defendatu ahal izango dute behin egiaztatzen dutenean enborreko edo nahitaezko 18 ECTS kreditu baino ez zaizkiela falta gradu bikoitza amaitzeko, kontuan hartu barik hautazko kredituak eta GRALari dagozkionak.

Matrikulak, ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko eskubidea ematen du; horretarako, ikasleek urtero ezartzen diren hiru deialdien artean aukeratu ahal izango dute; deialdi horien datak behar bezala argitaratuko dira ikasturtearen hasieran.

Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua

Antolakuntza akademikoa

INFORMAZIO AKADEMIKOA

Matrikula

Matrikulatu zarenean GAUR tresna erabili duzu².

Garrantzitsua da matrikula gainbegira dezazun, ea datu guztiak ondo dauden. Adibidez, euskaraz matrikulatuta zauden (31. taldean) ala gaztelaniaz (01., 02. edo 16. taldean).

Kredituak aitortu eta transferitzeko eskaria.

Ikasleek beste titulazio batzuetako kredituak aitortzea edo transferitzea³ eska dezakete. Horretarako, ikasturtearen hasieran eskariak egiteko epea argitaratuko da Idazkaritzan.

Ikasketen Gidaliburua

Titulazioko ikasketa planean irakasgai bakoitzaren informazioa aurkituko duzu: gaitasunak, programa, bibliografia, metodologia, ebaluazio sistema etab. Web orrian kontsulta dezakezu.

Eskola egutegia

Ikasturte bakoitzeko egutegia web orrian argitaratzen da. Ikasturte bakoitza bi lauhilekotan banatua dago: lehenengoa, irailetik abendura bitartekoa da; bigarrena, urtarriletik maiatzera bitartekoa. Ikasketa planeko irakasgai gehienak lau hilekoak dira.

² GAUR (unibertsitatearen gestio akademiko gaurkotua) aplikazio informatiko bat da, modua ematen dizuna zure informazio akademikoa kontsultatzeko: matrikula, kalifikazioak, amortizatutako kredituak eta abar. Interneten bidez sartzen zara aplikazioan (<http://gestion.ehu.eus/garu>) , NAN zenbakia eta pasahitza erabiliz.

³ Gogoan izan baliozkotutako kredituak ez direla kontuan hartzen bekak emateko orduan, beken arautegiaren arabera.

Eskola ordutegiak

Ikasgelako eskolen ordutegiak, lauhilekoaren hasieran argitaratzen dira, sarrerako iragarki oholean eta web orrian.

Aldaketarik badago, bertan argitaratzen da.

Tutoretza orduak

Irakasleek aurrez aurreko tutoretza saioak ematen dituzte, astean bi eta sei ordu bitartean, irakaskuntza egoeraren arabera. GAURen eta web orrian ikus ditzakezu irakasleen tutoretza ordutegiak.

Koordinazioa

Ikastegiak [talde bat dauka koordinaziorako](#): . Hauek dira osakideak: titulazioko koordinatzailea, moduluetakoa koordinatzaileak eta irakasgaietako koordinatzaileak.

Azterketen datak

Azterketen edo ebaluazio proben datak web orrian argitaratzen dira. Bi deialdi izaten dira irakasgai bakoitzeko ikasturte bakoitzean. Batetik, ohiko deialdia, urtarrilean 1. lauhilekorako eta ekainean 2.erako; bestetik, ezohiko deialdia, ekain-uztailetan.

Nahitaezko irakasgai biren ebaluazio proben datak batera suertatuz gero, goragoko mailakoa den irakasgai irakasleek jarriko dute beste data bat. Nahitaezko irakasgai baten eta hautazko irakasgai baten ebaluazio proben datak batera suertatuz gero, hautazko irakasgaiaren eguna aldatu beharko da. Horretarako, ikasleek data aldatzeko eskatu beharko diote irakasleari probaren eguna baino gutxienez hamabost egun natural lehenago.

Bi ebaluazio proba batera suertatu direla diogu maila desberdinetako bi irakasgaiaren probak egun berean direnean lau ordu baino gutxiagoko tartean.

Notak argitaratzea

Irakasgai bakoitzeko azken notak unibertsitatearen tresna informatikoaren bidez (GAUR aplikazioaz) argitaratu beharko dira nahitaez. Gainera, nahi izanez gero, irakasleek iragarki oholean ere argitaratu ahal izango dituzte; hala eginez gero, ikasleak NAN zenbakiaz baino ez dituzte identifikatuko.

UNIBERTSITATEAREN ARAUTEGIAK

Unibertsitatearen web orrian aurkituko dugu gestio akademikorako inguruko informazio zehatza.

Gomendatzen dizugu arautegi hauek kontsultatzea:

- Gradu Ikasketen Gestiorako Arautegia.
- Gradu Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegia.
- UPV/EHU Jarraitzeko Arauak.
- Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari buruzko Arautegia.

IKASLEEN PARTE HARTZE ETA ORDEZKARITZA

Taldeko ordezkariak

Ikasturtearen hasieran talde bakoitzak bere ordezkaria hautatu beharko du. Ordezkariaren eginkizunak izango dira taldearen ordezkaria izatea hala behar den gaian eta berak eskuratzen duen informazioa taldeari helaraztea.

Ikasleen Kontseilua

Ikasleen Kontseilua da ikasleen ordezkaritzarako organo gorena fakultatean. Egoitzako batzordeak hautatutako ikasleen ordezkariak eratzen dute. Organo hau bi urtean behin berritzen da, urri eta azaro artean egiten diren hauteskundeen ondoren. Kontseiluaren lokala bigarren solairuan dago. Organo honen funtsa ikasleek unibertsitate bizitzan parte hartzea da.

Helbide elektronikoa: bi-lh-gl.zik@ehu.eus

Egoitzako Batzordea eta Fakultateko Batzarra

Ikastegiaren gobernu eta administrazioarako kide anitzeko organoak dira eta haien erabakiak nahitaez bete beharrekoak dira ikastegiko beste organo eta kide guztientzat. Bertan ordezkaturak daude irakasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak, ikastegiko arautegiak zehazten duen moduan eta proportzioan. Fakultateko Batzarraren eginkizunak dira, besteak beste, dekanoa hautatzea. eta ikastegiko politika akademiko orokorraren lerro nagusiak diseinatzea eta onartzea. Batzarraren erabakiak nahitaez bete beharrekoak dira beste organo eta kide guztientzat.

Ikasleen ordezkaritzaarako beste organo batzuk unibertsitatearen gobernuan

Ikastegiko ordezkaritza organo eta figura horietaz gainera, badira parte hartzerako beste egitura batzuk, bai campusean (Campuseko Batzarra) eta bai unibertsitatean (Gobernu Kontseilua, Klaustroa eta Gizarte Kontseilua). Ikasleek ordezkariak dauzkate horietan guztietan, eta haien parte hartzea garrantzitsua da.

PRESTAKUNTZA JARDUERA OSAGARRIAK

Fakultateak prestakuntza jarduera osagarriak antolatzen ditu ikasturtero: biltzarrak, jardunaldiak, ikastaroak eta abar, adibidez GRALa prestatzeko mintegia, laneratzeko orientazio jardunaldia eta abar... Haien guztien berri jasoko duzu antolatu ahala.

Gure web orrian haien gaineko informazio eguneratua aurkituko duzu «Kongresuak, jardunaldiak, foroak etab.» atalean.

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA

Web orria

Web orrian fakultatearekin zerikusia duten hainbat gairen informazioa aurki dezakezu. Hona hemen adibide batzuk:

- [Antolakuntza akademikoa](#) eta [Ikasleentzako informazio](#) praktikoa ataletan ordutegiak, azterketa datak, eskola egutegia, tutoretza orduak eta abar aurkituko dituzu.
- [Ikasketa plana](#) atalean irakasgaien programak ikusi ahal izango dituzu.
- [Idazkaritza](#) atalean hainbat izapide eta inprimakiri buruzko informazioa aurkituko duzu (kredituen aitortpena, bigarren matrikulaldia...).
- [Araudiak](#) atalean interes akademikoko informazioa daukazu (unibertsitatean jarraitzeko arauak, eskarien tramitazioa, kredituen aitortpena...).
- Gure [web orria](#) informazio euskarri dinamikoa da eta etengabe eguneratzen da. Gomendatzen dizugu sarri bisitatzea, batez ere azken albiste eta aldaketen berri izateko.

Posta elektronikoa eta software-a

UPV/EHUK Microsoft-ekin hitzarmen bat sinatu du, **Microsoft 365** izeneko paketeen eskaintzen diren aplikazio guztiak zuen esku jartzeko. Hortaz, matrikulatuta zaudeten bitartean, ondoko hauek dohainik erabili ahal izango dituzue:

- **Teams:** Txata, bideokonferentzia, biltegiratzea eta abar dituen komunikazio-tresna
- **Outlook 365:** UPV/EHUko postontzi pertsonal korporatiboa edukitzea ahalbidetzen duen posta elektronikoa, 100GB-ko kuotarekin
- **OneDrive:** OneDrivek aukera ematen du fitxategiak hodeian gordetzeko, 1TBko kuotarekin
- **Office 365:** Word, Excel, PowerPoint eta abar dituen suite ofimatikoa
- Beste aplikazio batzuk (Lists, Planner, PowerApps, Forms, etab.)

Tresna eta aplikazioetarako sarbidea hainbat gailu eta sistema eragiletatik egin daiteke, nabigatzaile baten bidez, edo lizentziak eskaintzen dituen mahaigaineko edo mugikorreko aplikazioak deskargatuz. Guztiak hodeian daude eta Windows, Linux, MacOS, iOS eta Android bidez erabili ahal dira.

Zerbitzurako sarbidea: <http://www.office.com>

UPV/EHUren **posta elektronikoa** erabiltzeko **Outlook 365-ean** sartu beharko zarete, zuen erabiltzaile-izena eta pasahitza tekleetuz.

Informazio gehiago: <https://www.ehu.eus/eu/group/ikt-tic/m365>

Iragarki oholak

Fakultatean baditugu iragarki ohol batzuk:

Iragarki ohol ofizialean (erlojuaren azpiko bitrina, beheko solairuan) antolakuntza akademikoari buruzko informazioa argitaratzen da (ordutegia, azterketak, oharra).

Lehenengo solairuko iragarki ohol ofizialean batzordeen eta Ikastegiko Batzarraren jakinarazpenak argitaratzen dira, bai eta UPV/EHUren iragarpen orokorrak ere.

Idazkaritzaren ondoko bitrinan hainbat tramiteren gaineko informazioa aurkituko duzu (beken inguruan, kredituen aitortzenaz...).

Irakasleen bulegoen ondoko iragarki ohoetan ikasleen intereseko informazioa jartzen da (tutoretzak, notak, oharra etab.).

Korridoreetan, ikasgelen ondoan, beste iragarki ohol batzuk daude, informazio orokorragoa jartzekoak. Gainera, sarreran badago ikasleek erabiltzeko iragarki ohol bat.

Informazio pantaila

Ikastegiko Egoitzan informazio pantaila bi dago, bat eraikuntzaren sarreran eta beste bat bigarren solairuko hallean.

Irakokizunen postontzia

Web orrian bada postontzi bat, zure irakokizunak bidal ditzazu.

G.A.U.R. aplikatiboa mugikorrean

Euskal Herriko Unibertsitateak gailu mugikorretarako aplikazio bat sortu du bere ikasleentzat. G.A.U.R. izeneko app horren bidez abisu bat bidaltzen zaio ikasleari matrikulatu den irakasgai batean nota jartzen den bakoitzean. Halaber, matrikula, espedientea eta tutoretza orduak kontsultatu ahal dira, besteak beste. Informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikasleak/gaur-app>

BESTELAKO INFORMAZIO JAKINGARRIA

DIREKTORIOA

UPV/EHUko langile guztien telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea bila daitezke webgunean, Langileak atalean edo honako esteka honetan: <https://www.ehu.eus/bilatu/buscar/bilatu.php?lang=eu>

Dena dela, hona hemen fakultateko telefono eta helbide erabilgarri batzuk:

Arabako Atala

	Telefonia	E-maila
Atezaintza	945.01.33.17	ar-lh-gl.atezaintza@ehu.eus
Ikasleen idazkaritza	945.01.33.14/16	ar-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Dekanotzako idazkaritza	945.01.33.11	ar-lh-gl.dekanotza@ehu.eus
Administrazioa	945.01.33.15	lh-gl.koordinatzailea@ehu.eus
Ikastegiko teknikaria	945.01.42.70	ar-lh-gl.teknikaria@ehu.eus
Ikasleen Kontseilua	945.01.42.63	ar-lh-gl.zik@ehu.eus glkontseilu@gmail.com

Bizkaiko egoitza

	Telefonia	E-maila
Atezaintza	946.01.30.98 946.01.58.34	bi-lh-gl.atezaintza@ehu.eus
Ikasleen idazkaritza	946.01.31.01/02 946.01.58.35/36	bi-lh-gl.zentru-idaz@ehu.eus
Dekanoaren idazkaria	946.01.30.93	lh-gl.dekano-idazkaria@ehu.eus
Administrazioa	946.01.31.00	lh-gl.administratzailea@ehu.eus
Ikastegiko teknikaria	946.01.81.45	bi-lh-gl.teknikaria@ehu.eus
Praktika Zerbitzua	946.01.32.15	bi-lh-gl.praktikak@ehu.eus
Ikasleen Kontseilua		bi-lh-gl.zik@ehu.eus
Mugikortasuna	946.01.83.75	mireyajosefina.ferreras@ehu.eus